


CRIMEN Y CASTIGO



KRIMINOLOGIA, 1. MAILA
ANTROPOLOGIARAKO SARRERA
MIKELE LAPEIRA ASTORKIA

AURKIBIDEA

1. SARRERA (3- 6 orriak)

1.1 FIODOR M. DOSTOIEVSKI (3 - 5 orriak)

1.2 CRIMEN Y CASTIGO (5 - 6 orriak)

1.3 GAINONTZEKO LANAK (6 . orria)

2. EDUKIA ETA ALDERAKETAK (7-13 orriak)

2.1 LIBURUAREN LABURPENA (7- 9 orriak)

2.2 ALDERAKETAK (9-13 orriak)

3. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK (14- 15 orriak)

1. SARRERA

1.1. FIODOR M. DOSTOIEVSKI

Fiodor M. Dostoievski (Mosku 1821 – San Petersburgo 1881) zarismoak agintzen zuen errusia bateko idazlerik esanguratsuenetakoa izan zen, berak bere lanetan giza psikologia aztertzen zuen eta bertatik XIX. mendeko bigarren erdialdeko testuinguru politiko, sozioal eta erlijiosoa.

Gaztaro bortitza izan zuen Dostoievskik, zazpi anai-arreben arteko bigarrena zen, ama errusiarra zuten eta honen maitasun eta afektua jasotzen zuten arren aita bielorrusiar medikua zuten, zein despota eta autoritario bat zen, baina berorrek ahalbidetzen zien biziraupena, izan ere etxeko diru iturri bakarra zen. Zorigaitzeko heriotza goiztiarra izan zuen amak, hain zuzen idazleak 16 urte zituela, jadanik aitaren jarrera desatsegina bazen, heriotz honek hare gogorragoa egin zuen, alkoholismoan erori baitzen eta azkenik depresioak jo zion. Bi urte barru aita hil zitzaion horrela bera, beste seirekin, umezurtz geratuz.

Aitak, hil aurretik, Ingeniari eskola batera bidali zituen bera eta bere anaia San Petersburgora, bertan jakinarazi zioten aitaren heriotzaz, eta lehen aldiz errudun sentimenduak pairatzen hasi zen, izan ere askotan desiratu baitzuen heriotza hura eta modu batean bere erua bailitza sentitu zuen.

Ingenieritza lanetan zebilela lehen obra literarioak irakurri zituen eta lehen itzultzaile lanak egin zituen, horrela bere bokazioa aurkitu zuelarik. Behin ikasketak amaituta zituela San Petersburgora bidaiatu eta literaturan soilik jarduteko exedentzia bat eskatu zuen, bertan intelektualen taldeetan sartzen hasi zen, pentsamendu utopiko edota nihilistak partekatzen zituztenekin, jende guztiz existentzialista, giza askatasuna zuten desio hauek.

Betidanik zetorkion arren epilepsia, garaian, geroz eta atake gehiago pairatzen zituen eta beraz, sufrimendu hori isladatzeko geroz eta gehiago idazten hasi zen, korrelazio

adiktibo moduko bat sortu zuelarik literatura eta epilepsiarekin, hori dela eta protagonistengan ikus dezakegu atakeak pairatzeko joera.

Nikolas I. zarra zenak ez zuen bere oinarria tinko sentitzen errebolta batzuk hasiak baitziren europan zehar eta baita errusian ere, beraz, ortodoxitik at zegoen pentsamendu edo egitate oro erreprimitzeko hautua egin zuen, hori horrela, gure idazlea intelektual talde bateko partaide zenez; konkretuki, “liberal circulo Petrashevski” ko partaide zenez, kondenatua izan zen. Hauek espetxeratuak izan ziren eta berarekin batera zeudenak erailak izan ziren arren, bera Siberiara eraman zuten non 5 urtez lan bortxako esparruan egon behar izan zuen, hau, berriz, liburuan ikus dezakegu, halere ez zen hamen amaitu zigorra, batailoiko soldadu izan zen ondorengo bost urtetan, bertan bere lehen emaztea izango zena ezagutu zuen, “María Dmítrievna Isáyeva”. Ondorengo zarrak, Alejandro II.ak, sinatu zuen amnistia legea, lagungarri egin zitzaion Dostoievskiri, izan ere bere lanak argitaratzen jarraitzeko eskubidea bereganatu zuen zigorra amaitzeaz gain.

Garai gogorrak ziren, aurrerakoien eta tradizionalisten arteko talkak abian jarri baitziren, Nikolas I. aren errepresio garaiak pairatu zituen eta baita Alejandro II.aren erreforma garaiak, ordurarteko esanguratsuenak ematea lortu zuenarena, ordura arte Dostoievski intelektualen inguruan kokatu zen arren (uler dezakegu aurrerakoa izan zitekeela), hau amaitzean kristau ziur bilakatu zen. Jarrera sozialistak kritikatzeko jardun zen, garaian forma hartzen hasiak zirenak, hori horrela nobelak erabili zituen kritika horiek gauzatzeko. Sinetsita zegoen, propagazio sozialista gauzaten zutenek ez zutela errusiar herria ezagutzen eta beraz ez zutela hori egiteko zilegitasunik, modu berean katolizismoaren aurka agertu zen kristau-ortodoxo gisa, europan zabaltzen ari izanagatik errusia ezberdina baitzen, pixkanaka eta gutxinaka izan arren arraza eslaboaren supremazian sinesten hasia zen Dostoievski berria, eta guztia transmititzeko liburuak erabiltzen zituen. Ideal europeoak unibertsalak izatea ezeztatzen zuen ideal errusiarren defentsa sutsuan. Hau guztia kontuan izanik oso garrantza gerta dakiguke Dostoievski politikoki kokatzea, izan ere pentsakera oso ezberdinak partekatu eta isladatu zituen gizon bat izan zen.

1864a urte arrotza izan zen, izan ere, bere anaia eta emaztea hil zitzaizkion, horrela, anaiaren emaztea eta lau seme-alaben kargu egin zelarik eta honek zuen 25.000 rubloko

zorraz ere bai, miseria gordina dastatuta, jokuan hasi zen; ia depresioak jota zegoela, atake epileptikoak gehikuntzan zioazten denbora guztian, horrek, egoera txarrera eramanez eta azkenean errusiatik alde egin behar izan zuen horrekk behartuta. Europan barrena ibili zen, bertan idazlan berriak ateratu zituen, zeinak diru pixka bat eman zioten errusiara itzuli ahal izateko. 1865ean San Petersburgon, berriz, kontratu bat sinatu zuen eta serioki idazten hasi zen, zorrak kitatzen hasteko, gainera bere bigarren emaztea izango zena ezagutu zuen, biak europara joan ziren, bertan beraiekin lehen alaba jaio zen, Sonia, baina bi hilabetera hil egin zen, horrek depresioa sortu zuen idazlearengan eta jokurako adikzioa hareagotu, 1869an bigarren alaba izan zuten, 1871an berriz haurdun zegoela eta lau urte atzerrian igarota etxera itzultzea erabaki zuten, azken semea 1875ean izan zuten, jadanik San Petersburgon.

Idazlea, etxean hil zen atake epileptiko batek eman zionean sortutako birrikako hemorragia batengatik.

1.2 CRIMEN Y CASTIGO

Eskuartearen dugun liburua, "Crimen y castigo" hain zuzen, 1866an Errusiar Inperioan idatzitako genero narratiboko nobelarik ezagun eta garrantzitsuenetako bat da, bere idazlea, aipatu berri dugun Fiodor M. Dostoievski da, Leon Tolstoi-rekin batera errusiar idazle esanguratsuenetako bat.

Izaera psikologikoko nobela hau eleberri gisan argitaratu aurretik hamabi zatitan joan zen azaleratzen "El mensajero Ruso" deituriko aldizkari batean. Errusiar hizkeran idatzitako libururik unibertsalena dela esan daiteke, eta liburuak barnebiltzen dituen elkarrizketak, idazle esanguratsu askoren hitzetan, literatura unibertsalaren gailurra dira.

Izaera psikologiko horrek horrenbesteko garrantzia du ezen pertsonaien barne munduek, kanpoko munduak adina garrantzi dutela, auzi moral asko azaleratzeko gaitasuna du liburu honek; gizabanakoak besteekin eduki beharreko harremanez ere hausnartzera eramaten gaitu, hori horrela lagun eta senideen arazo edo zeresan psikologikoak ere asko azpimarratzen dira istorioan zehar.

Hori guztia kontuan izanik, fikzio literarioko “obra maestra” gisa ezagutzen da eleberria, eduki filosofikoak balioa gehitzen dio kontakizunari, eta gizakion baitan dauden hausnarketak azaleratzeko lanabes bikaina bilakatu da berau.

Esan bezala, fikziozko lan bat da baina oinarri pertsonalak ere baditu, errealtasun kutsua ematen diotenak, izan ere, Raskolnikov, pertsonaia nagusiak, izaten dituen zorabio edo atakeak, Dostoievskik, berak, pairatzen zuen epilepsiarekin aldera genezake. Horretaz gain, Siberiatik eta batailoian soldadu gisa jardundakoan mota askotako delitugileak ezagutu zituen, zeinen esperientziak baliatu zituen delitugilearen azalean jarri eta haren *psyche* -a ulertzen saiatzeko. Existenzialismo kutsua ere badu liburuak, hala nola, bakarrizketetan edota barne pentsamenduen presentzian aprezia dezakegu, barne bizitzak akzioa duela nabari da.

1.3 GAINONTZEKO LANAK

Idazle errusiarraren “Opus magnum” delakoa *Crimen y Castigo* den arren bizitza osoan zehar idazten ibili izanak sekulako lan zerrenda utzi zion, aipatu bezala zorrak kitatzeko eta bizirauteko bere ogibidea zen, gerora fama eta esangura ekarriko ziona, hori horrela baditu baita ere beste hainbat lan, aipu berezi bat merezi dutenak:

1. Los Hermanos Karamázov: bi urte igaro zituen liburu hau idazten eta argitaratu eta lau hilabetera iritsi zitzaion heriotza idazleari. Debate etko eta filosofikoak abiapuntu ditu lan honek.
2. El Idiota: “urrezko garaiko” lanik distiratsuenetako bat izan zen.
3. Los endemoniados: aurretik aipatutako biekien eta gure liburuarekin batera, Dostoievskiren laukotea osatzen du liburu alegoriko honek.
4. Noches Blancas: honako hau, Dostoievskiren lehen lanetako bat da.

Eta abar luze bat, aipagarrienak hauek izanik.

2. EDUKIAK ETA ALDERAKETAK

2.1 LIBURUAREN LABURPENA

Eskuartearen dugun liburua, esan bezala, Dostoievskiren “Crimen y Castigo” da, fikziozko istorio psikologiko honetan ondorengoak dira gertakizunak:

Lehen orrialdeetatik ikus dezakegu Rodión Románovich Raskólnikov zuzenbide ikslea zein egoera prekario eta marginaletan bizi zen, ikasketak uztera behartua ikusi zen, logela bat alokatua zuen eta ia lagunik ez zuen sekulako hotzak eta txirotasunak agintzen zuen errusiar imperio zarista batean. Behin eta berriz igartzen zen sakontasun psikologikoa zuen gizonezkoa zela berau, galdera existentzialistetan murgildurik baitzegoen lehen momentutik, baina bazegoen halere gailentzen zitzaion sentimendu bat, Aliona Ivánovna agure prestamistarekiko amorrua eta ezinegona.

Koiuntura horretan eguneroko ogia zen alkoholismoa, jokia eta miseria, horrela ezagutu zuen Marméladov funtzionarioa, honek bere bizitza kontatzeko beharra sentitu zuen, horrela jakin zuen alaba prostituta bat zuela, familia aurrera atera ahal izateko hasi zena horretan, Sofia Semiónovna Marméládova hain zuzen, geroago Rodion maiteminduko zen neska, beste hiru seme albaez gain eta lehen familia esanguratsu batetan jaiotako emaztea zeinak ez zuen onartu nahi egoera hori,

Amorrua eta errua bereak zituen horretan ezkutitz bat heldu zitzaion gazteari zeinak bere arreba gizon batekin ezkonduko zela zion, eta inplizituki zion familia ekonomikoki sostengatzeko modu bakarra zela. Hori horrela, asko hasarratu zen, bereziki amarekin baina horrek bere buruarekiko sentimenduak isladatzen zituen, izan ere, bazekien, Avdotia Románovich Raskólnikov, hau da, bere arreba, ez zela salduko beragatik ez balitz.

Sentimenduen gora-behera horrek jokaera arraroak izatera bultzatu zuen, oso txikia sentitzen zen, edo bakarrik zegoela. Behin eta berriz iruditzen zitzaion egiten zuen oro gaizki zegoela, honako esaldia dugu adibidez adierazgarri: “Allí no había ahogo, ni mal olor, ni tabernas. Mas no tardaron también aquellas nuevas y gratas sensaciones en volverse morvosas e irritantes” Ezinegonak agintzen zuen beregan.

Bazebilkien buruan bueltaka agurea hiltzeko nahia azkenaldian, orduan jakin zuen arreba bat bizi zela berarekin, Lizaveta Ivánovna. Hau noiz ez zen egongo etxean ohartu zen eta segurtasun falta eta pentsamendu kontrajarri pila izan arren aizkora altzoan hartu eta hauen etxeraka bideratu zen. Ez zuen nahi, baina bestalde zilegi zela irizten zuen gizaki horri bizitza kentzea, besteen kontura bizi baitzen, inolako errukirik gabe.

Aurkako sentimenduak azaleratu zitzaizkion hasieran, baina gauzatu ahala nahia gehitzen eta ondo egiten ari zenaren sentimendua gehitu zitzaizkion.

Aliona hil zuen eta bere etxea arakatzen ari zela, gutxien espero zuenean ahizpa azaldu zen eta hau ere hil egin behar izan zuen. Jendea Alionarekin tratuak egitera zioan eta honek atea irekitzen ez zuela ikusita susmatzen hasi ziren, halere konfusio momentu batetaz baliatu zen eraikinetik irteteko inork ikusi gabe.

Sukarra, zorabioa, zoramena... denak batera pairatu zituen hurrengo egunetan, ez zen lau egunetan esnatu. Komisaldegira joateko zitazio bat heldu zitzaion diru kontu batzuk zirela eta, bertan iruditzen zitzaion denak bera zela hiltzailea jakitun zirela. Konspirazio modukoak ikusten zituen une oro. Erruduna eta heroia sentitzen zen, harro zegoen gauzak ondo egin izan eta ez zutelako hartu baina bat-batean berriz errudun sentitzen zen. Halere beste gizon bat bilakatu zen susmagarri, jendearen susmoak aditzen zituen eta batzutan hirugarren pertsonan bezela bizitzen zuen hau, bera ez bailitza gai errekonozitzeko istorioaren errealitatea.

Guztia puri-purian zagoenean bere arrebaren ezkongaiak azaldu zen, bere filosofia liberalaz eta jabetza pribatuaz mintzatu zen, beroalda izan zuten biek eta gogo txarrez bidali zuen Luzhin bere etxetik. Delitua eta gero umore aldaketa izugarriak izaten ari zen, amaitzeko beharra sentitzen zuen eta barre artean konfesio moduko bat egitera heldu zen, polizia nahasturik utzi zuen baina ironia zela sinetsita.

Guztiz nahasturik zegoen horretan Marmeladov funtzionarioak ezusteko bat izan zuen, auto batek harrapatu zuen, eta bertan hil zen, Raskolnikovek ikusi egin zuen hura eta soinean zuen dirua eman zien seme-alabei, gutxienez aita ondo agur ezaten.

Bilera iskanbilatsu bat izan ondoren Luzhin, bere arreba eta amarekin, hortik alde egitea erabaki zuen ez baitzitzaion gustatzen gizonezko hura eta Sofiarekin gelditu zen, denbora aurrera zioala, Raskolnikov Sofiarekin harreman estuagoa izaten hasi zen eta sakontasunez hitz egiten zuten.

Une horretan, kasua ematen ari zen epaileren etxera joan zen ia agure horrek zituen bere objektuak jaso zitzaizkeen galdetzera, hori horrela elkarrizketa sakon bati abiada eman zioten. Raskolnikoven artikulua bati buruz jardun zuten zeinetan hilketa batzuk zilegi zirela zion gazteak, pertsona batzuk legeditik at zegoena ez balute egin historian zehar aurrerapenik ez zela emango zion eta gainera, pertsona arrunt eta ez arruntan banaketan sartu ziren. Nerbioak jota irten zen handik eta biharamunean esnatu zenean, pertsona bat logelan bere zain aurkitu zuen.

Arkadii zen gizon hura, bere arrebaren antzinako jabea, zeinak dirua eskeini zion bere arrebaren ezkontza eragotz zezan, izan ere berataz maiteminduta baitzegoen Arkadii. Hori horrela, bilera bat izan zuten Luzhin-ekin eta garbi utzi zioten Raskolnikoven senideek eta berak ez zutela nahi ezer jakin berataz. Une horretan Rodia etxetik irten

zen epailearengana joateko berriz, baina orduantxe hasieratik susmagarria izan zen beste gizonak bera zela erruduna esan zuen.

Marmeladoven hiletan Luzhinek Sofia lapurtzat salatu zuen horrela Raskolnikov bereganatzeko baina Arkadiik bere plana zapuztu zuen, hau guztia amaitzean Sofia eta Rodion hitz egiten gelditu ziren eta honek esan zion azkenean, bera izan zela hiltzailea. Momentu horretan Soniaren ama gaixotasunak jota erotzen hasia zen eta bere bila joan ziren Arkadiik atearen bestaldetik dena adit zuela esan zionean, hau da, bere delituaren jakitun zela.

Konfesatu zuen gizona kondenatu zuten, baina orduan epailea eta Rodion berriz hitz egiten hasi ziren eta honek esan zion bazekiela bera zela erruduna eta esan zezala, egonezinez taberna batera joan zen zeinetan Arkadiirekin topo egin zuen eta heriotza mehatxu bat egin zion bere arrebarengana hurbilduko balitz, orduan honek Duniari (arriba) kontatzen dio nola bere anaia izan zen bi emakumeen hiltzailea, ikusten duenean ordea honek ez duela maite, bere buruaz beste egitea erabakitzen du.

Raskolnikovek jada patuari jarraitzea erabakitzen du eta ama eta arrebari azken agurra ematen dizkie, Soniak ordea ez dio uzten, berak lagunduko diola esaten dio, eta egia esaten amaitzen du. Azken orrietan azaltzen da Rodionen lagunta eta egia guztia direla eta azkenean lan bortxara kondenatzen dutela, eta hemen maitasunera entregatzen da Soniarekin.

2.2 ALDERAKETAK

“Obra maestra”-tzat hartzen duten narrazio hau (arrazoi guztiz) giza psikologiaren konplexutasunaren adierazle nabaria da, “La montaña rusa que sube al cielo del orgullo y baja al infierno de la culpa” irakur zitezkeen iruzkin batean, Dostoievskik sekulako elegantziarekin sartu eta nahastu zituen korriente filosofiko ezberdinak, ederki ikus zitezkeenak Profirii epailea eta Rodion zuzenbideko ikaslearen artean “arrazoia” batetaz mintzo zirenean, hala nola horrek Dostoievskiren arraza eslaboaren supremaziaren siniskera ordezkatzeko ez zuen arren guztiz, klasismoaren deskripzio gisa uler genezake, hainbat sentimendu kontrajarri bateratzeko ahalmena izan zuen, hala nola, momnetu batzuetan Raskolnikov heroi gisa sentitzen da berak baitzion harrapatzerik lortu ez badute oraindik akaso berarengan kriminalitatea zilegidagoela edota egin duen eintza hori ez dela guztiz kondenagarria, baina momentu berean errudun sentitzen zen eta guztiarekin amaitzeko berra sentitzen zuen, damua zuen. Baina bereziki, sentimendu eta pentsamenduok sakon-sakonki adierazteko errekursoak izan zituen, ironia eta galdera erretorikoetatik egiazko kontakizunak faltsu irudika zitezkeen lortzen zuen baita abstraktuki hitz egitea ere uneko gauza errealean gainean.

Hori horrela liburuan zehar aurki daitezkeen izugarritzko esaldi batzuk aipatuko ditut.

“Yo no sostenía ni remotamente que los hombres extraordinarios estuviesen obligados y hubiesen, sin remisión, de cometer siempre toda clase de actos deshonrosos, según usted dice. Me parece incluso que la censura no lo hubiera dejado pasar. Yo me limitaba sencillamente a insinuar que los individuos “extraordinarios” tenían derecho (claro que no un derecho oficial) a autorizar a su conciencia a saltar por encima de... ciertos obstáculos, y únicamente en el caso en que la ejecución de su designio (salvador, a veces, acaso para la Humanidad toda) así lo exigiere”

Aipatu berri dugun pasarte honetan Raskolnikovek duen ideia nagusienetako bat aipatzen da: gizaki berezi eta arrunten arteko bereizketa. Berak sinesten du gizadia bi zatitan dagoela banatua; ARRUNTAK, zeinak men egiteko balio duten eta gizateriaren reprodktziorako diren, gizadia dira bai baina ez dute aurrerakuntzarako balio, ez dute ezer esateko eta BEREZIAK zeinak mundua aurrera eramaten duten, askotan legeak hausten dituzte lege berriak ezarriz, biana zilegi diren kasuetan ere askotan zigortuak izan ohi dira izan ere euren lege berriak jartzerakoan krimenak egin dituzte. Hau da, Raskolnikovek dio hauek salbatzaileak direla, gizateriaren iznean egiten dute, eta batzuetan beharrezkoa da bai gizateriaren aurka jokatzea eta batzuk zapaltzea, beharrezkoa denaren buruan, ezta? “El fin justifica los medios” esaldi ospetsuaren babesle izango zela esango nuke.

Napoleon jartzen du bein eta berriz adibide, zerbait berria esan dezaketen edo esateko duten horiek oso oso gutxi direlakoan dago, eta gehiengo batek zapalduko ditu, beraz, hauek beharrezko denean kriminaliate eskubide moduko bat mereziko lukete zapalduak izan ez zintezan, gu guztiongatik eta aurrera egiteko behar batengatik egiten baidute. Ez baldin badituzte aurretik kentzen oztopoak inoiz ezingo dute aurrera egin, eta geu ere betirako hor geldituko ginatke. Honek erreakzionarioen aurrean ikara eta frustrazioa sortzen du, huaek arruntak izango dira, konserbadoreak dio Raskolnikovek, zilegi ikusten duten aurrerakoi horietan kokatzen da berau.

Guzti honek zuzenean, Friedrich Nietzsche pentsalari alemana dakarkit burura, noski, bere “der Übermensch” edo supergizakia delakoarekin; Nietzschek zion guztiongan bazegoen ere berezitasun bat, soilik ehuneko txikiena heltzen zela benetako gizaki izatera, hau da, supergizaki izatera; benetan sentitzen duena egitera eta giza arauen gainetik egotera, Raskolnikoven hitzetan berezia izatera. Nietzschek “umearen fasea” bezala ezagutarazten zuen benetako gizaki edo supergizaki izatera heltzeko azken aldia. Bertan berak guztiz babesten zuen aristokraziako ehuneko berezi bati buruz mintzo zen, soilik merezi dutenak: “*¡Los débiles y los fracasados deben perecer!, es la primera proposición de nuestro amor a los hombres. Y se les debe ayudar a morir*” (Nietzsche,

el Anticristo) modu batez berdinean amaitzen dute, Raskolnikovek zuzenean hil behar dute esaten ez duen arren izan ere guztion bizi eskubideaz mintzatzen da beranduago, bai ziola, ordea, eskubide bat dagoela “bereziengan”. Halere, deigarriena azken eskaldi honetako “y se les debe ayudar a morir” izan daiteke baina hori modu batez bai dela Raskolnikovek dion zerbait izan ere, bestela, gizateriarrentzako traba bat izaten amai baitezakete aurretik kentzen ez diren horiek. Berak, gainera hil zuen Aliona emakumeataz mintzo zenean, inoiz ez zuen gizakitzat hartzen, zorri higuinari deitzen zion, eta damua zuen arren giza hilketa bat egin izanaz, gainera albo kalte gisan bi egin behar izan zituen, zilegi iruditzen zitzaion emakume hori erditik kentzea, erruki eta gizatasun gabeko emakume hori traba bat soilik baitzen.

Klasean ikusi berri dugun “EL RETORNO DEL HIJO PRODIGO” parabolak, barkamenari egiten dio mintzo, izan ere Jesusek fariseoei eamandako erantzuna baita, hauek kritikak egiten zizkiotenean delitugileei laguntza eskeintzeagatik. Parabola honekin, soilik liburuaren izanburua hartuta lotura zuzena egin dezakegu, istoriotik ezberdina den arren, izan ere Rodionek ez du aukerarik dirua nahi bezala xahutzeko, hau lortzeko egin zuen hein batean delitua, gaiztoa zen emakume baten aurkako eraso izan zen, biziraupena bermatzeko egindako ekintza izan zen, ez zuen ihesik gauzatu baina damua gailendu zenean eta konfeszatzen joatean, senideei azken agurra ematean, Soniaren barkamena jaso zuen, maite zuen pertsonaren onarpena, bere delitu eta damuaz jakitun, modu batean konparaketa egiteko balioko liguke aita Soniarekin alderatzea, egindakoak eginda barkamena eskeini dion pertsona eta bere babes uneoro. Hori horrela, epilogoan ere ikusten da nolabaiteko lotura, Rodionek damuz dena hitzez hitz nola izan zen azaltzen zenean, ohartuta bere naturaren ontasunaz zigorra gutxitzen diote, hori izan zitekeen Raskolnikoven itzulera, edo barkamena, baita ere.

“El hombre lo tiene todo al alcance de la mano, y, como buen holgazán, deja que todo pase ante sus mismas narices. Esto ya es un axioma”.

Axioma alor teoriko bateko egiaztapen nagusia izango litzateke, barnebiltzen dena, gainontzeko egiaztapenen abiapuntua. Beraz ulertzen dugu hamendik egia nagusi bat gizakiaren pasibotasuna dela, beste behin, esaldi honekin Friedrich Nietzsche datorkit burura, eta haren korriente nagusi Nihilismoa, “Nihil” ezer esan nahi duen hitz latinotik dator eta beronek bi zatitan banatuta dagoen arren, aktiboa eta pasiboa, oinarri nagusi bat du, balore erlijioso, moral etabarren falta eta ezer ezin alda daitekeenaren sinismena, ezerk ez baitu zentzurik. Halere, nihilismo honen zenttua bere gizartea ezerezean gelditu zenean sentitzen zen balore faltatik dator, une batzuetan ikus dezakegu Rodini balore asko falta zaizkiola eta beste batzuetan berriz guztiz harritzen gaitu bere

eskuzabaltasun eta zaintza baloreekin, nihilismoa ez da gizarte pasibo baten islada izan ere helburu axioma hau berau aldatzea izango luke helburu et balioak berrezrtzea, bitalizazio falta horren aurrean atakatzeta eta ez izatea norbait “deja que todo pase ante sus mismas narices” baizik eta hau errotik heldu eta golpe bat emango diona eta landuko duena eta bizigrina sentituko duena, haren loretze guztian. Nihilismoak momwentuko egoerari buelta bat eman nahi dio eta esaldi hortan agertzen den inertziari jipoi bat eman, baloreen garrantzia azaleratu.

Baloreez mintzatzean, tolteken lau akordio nagusiak ezin dira inola atzean laga ez eta hauen bi balore aipagarri, beldurrik eta inbidiarik ez izan beharra.

Horren aipagarri izan zitekeen ondorengo esaldia:

“Procedamos, avancemos con valentía teniendo en cuenta que el miedo es quien nos hace sordos a la verdad” (El arte tolteca de la vida y la muerte)

Raskolniovi beldurra gailentzen zitzaion une oro nahiz eta modu ezberdinetan azaleratu, hori dela eta zoramenak eta sukarrak ematen zioten, sentimenduen barne-gatazketan sartzen zen, momentu baten harro sentitzen zen eta ondorengoan errudun. Konspirazio modukoak ikusten zituen, delitua gauzatu ondoren komisaldegira joatena adibidez sentitzen zuen jendea berataz mintzo zela eta bazekitela bera izan zela egilea eta hauek guztiak antzezlan bat egiten ari zirela berak onartu zezan hala izan zela. Baita ere, epailearekin izan ituen lkarrizketa sakon horietan honek behin baino gehiagotan esaten zion inplizituki bazekiela bera izan zela, azkenik explizituki esan zion arte eta guztietan bulkada arraroak ematen zizkin beldurra gailentzen baizitzaion, beldurra emarten zion baita ere bere sendie lagun edota edozein gertukok bere erruz sufritzea eta horregatik agurtzen zituen hauek betirako. Kasu horietan, ikarak barnean zuen izaki arrazionala txikitzen zuen eta oso irrazionalki jokatzen hasten zen, horrela une batean ironia erabiliz konfesio bat egitera ere iritsi zen, ez zen gai bere burua batzuetan gelditzeko.

Halere, bada filosofo/psikologo austriar bat istorio guztian zehar behin eta berriz burura etorri zaidana, Sigmund Freud hain zuzen, pentsalari hau psikoanalisiaren aita izan zen eta historiaren eta ume aroan izandako esperientzia sexualen inguruan lanketak egiten ibili zen, bere ustez hauek oso erabkaiorak ziren gure helduaroko nortasunean. Esperienziez gain bulkadak ere landu zituen, hauek innatoki ertetzen zaizkigun instintu horiek dira eta hauek bi zatitan banatzen zituen, agresiboak edo tanatikoak (“thanatos”), zeinak haserre gaudenean oihu egitera, norbait jipoitzera etab. Eramaten agituzten eta bulkada sexualak edo erotikoak (“eros”) exzitazioa sortzen diguten eta hauei eman diegun erantzuna izango ziren. Nahiz eta hauek innatoak izan derrigorrezkoa da ikaskuntza prozesu baten bidez hauek erreperimitzen jaikitea, gizartzean elkarbizitza eta elkarlanean bizi ahal izateko, baina arazoa sortzen da gizartearen erreprimitzeko

ahalmena hainbestekoa denean ezen gizaki batzuk neurosia eta egonezina pairatzera heltzen diren. Honen jakitun izanik, Charcot medikuarekin hipnosia aztertzen egon zen eta ondoren bere psikoanalisi garatu zuen, ametsen garrantzia barneratuz.

Liburuan ikus dezakegu nola Raskolnikovek bulkaad tanatikoak dituen eta ezin erreprimitu ditzakeen horrela gizarteko arauak (eta baita legedia ere) apurtuz, horrela esan dugun elkarbizitza edo elkarlana ezin bermatu izanik, hau da delitua gauzaturik. Halere, Rodion ez da inmunea ezta ere, damua sentitzen du eta gauzatu artean eta baita ondoren ere pentsamendu kontrajarri asko ditu baina azkenean ezin du erreprimitu eta delitua gauzatzeko amaitzen du.

Cuanto más bebo, más sufro. Por eso, para sentir más, para sufrir más, me entrego a la bebida. Yo bebo para sufrir más profundamente”. -Marmeladov

Bada egun, oraindik, errotuta dagoen sentimendu bat, zeinak zoriontasunak errudun sentiarazten gaituen, badira mezu subliminalak ez digutenak uzten ongi sentitzen eta errealitatearekin adi eta kritiko egoten beti inkontzineteki mezu batzuk sartzen dizkigutelako, bai beti sinistarazten digute gu baino okerrago daudenekiko errukia senti behar dela, eta hori guztiz egia da eta laguntza, elkarlana eta elkarbizitza behar dira, zaintzan oinarritu beharko genituzke dauden harreman guztiak baina ezin dugu horregatik zoriontsu izateagatik utzi. Marmeladovek kasu hontan gaizki sentitzeko beharra du, ezin ondo edo normal sentitzea onartu, bere etxean dagoen testuingurua dela eta bere bizitza dela eta oso gaitza zatekeen zoriontasuna bilatzea baina hare gehiago joateko beharra sentitzen du, oso gaizki sentitzeko beharra eta egia esan hori lortzen dabilen adinean ez dabil inondik inora lehen zorigaitza ematen dion hori konpontzeko ezer egiten, onartua du bere patua eta sakontzen dabilki bizitza osoa, “zirkulu bizioso” bat delakoan murgildurik.

Bere alaba prostituzioan sartu zen etxerako dirua lortzeko, berak une batez lanpostua galdu zuen nahiz eta orain izan, halere alkoholetan gastatzen du dirua etxera eman beharrean eta bere nahiak gehiago gastatzea dakar, horrek guztiak samina sortzen dio, familiaren zama gainean du eta elkar zaindu beharrean ihes egiten du eta tabernan itotzen da bera bakarrik, inorri laguntzarik egin gabe.

3. ONDORIO ETA HAUSNARKETAK

Irakurri berri ditudan orri harrigarri guzti hauek, ez dute inor berdin uzten, irakurri aurretik eta ondoren giza psikologiaren ulermenean garapen sakon bat egin dugu guztiok, Raskolnikoven sentimendu zurrumbilotik hasita, Marmeladoven bizi-mineraino, barruraaino sartzen zaizun liburu horietako bat da eta zu zeu ere ez zara gai beste ezertan pentsatzeko horriotan murgildurik zauden bitartean.

Hainbat galdera sortzen dizkizu, hainbat frustrazio eta errealtate gordinaren jakitun egiten zaitu, hala nola, Sofiaren bizitza prekariora analizatzen jarrita ezinezkoa da ezingona ez sentitzea, bere burua den subjektua merkantilizatzen du, bere gorputza saltzeko prest dago izan ere familiaren subsistentziarako beharrezko duten diru beharrean dago, eta bien bitartean Razumijinen inguruan eta gorago dagoen aristokraziako elitearen usain bat nabaritzen da nahiz eta klase baxuan barneratzen den trama, horrek asko pentsatzera narama eta oharkabean imperio bortitz horretan zeuden bizi-baldintza gordinez hausnartzen nabil, izan ere, gu geu gai izan gara pertsonaiek pairatzen zuten gosea sentitzeko, baina benetan pentsatuz, uler ere ezin dezakegu egin zer den jasango zuten gosea Errusiar Imperioan egingo zuen hotz izugarriarekin partekatzea, hare gehiago Marmeladoven seme-alabak eta emaztea kale gorrian gelditzen direnean.

Bizi-baldintzei begira, ikusi dezakegu Puljeria ere gaixorik zegoela, baita Raskolnikoven sukar aldiak ere, bere ama ere azkenik gaixorik hiltzen da nahiz eta hemen adina ere funtsezko faktore izan, horrekin guztiarekin esan nahi dudana da, garaiko imperio zaristan bazegoela kapitalaren banaketa desorekatua beste behin, jendeak ez zituen beharrezko baliabideak jatordu guztiak betetzeko, ez eta gaixotasunari duin aurre egiteko, gainera higie eta segurtasun baldintzek hareagotu egiten zuten biziraupenaren arriskua, horrela, gehiengoa osatzen zuen behe klaseko masa nagusiak ez izanik behar adina kapazidade egitura hori aldatzeko gai izateko, ezta kasuan ere, ohartzeko benetan zer zen gertatzen zena, gizarte iherarki hortan, hau da desoreka zegoela ondasunen banaketan hainbat interes aristokratiko zirela medio, izan ere gizabanako hauek nahikoa zuten bakoitzak bere lana egiten.

Bizi-baldintzen narrazio oso xehetua emateaz gain, bereziki, lan honen gai mamitsua, gizakiaren barne mundua da, behin eta berriz adierazten zituen Rodionek zituen barne-gatazkak, horrela irakurleoi ohartaraziz ez dela erraza beti nahi duguna onartua dagoenarekin lotzea, batzuetan moralki balio batzuk ditugula baina gure ekintzek aurkakoa adierazten dutela, bai noizeain behin kontraesanetan erortzen garela akordatuarazi dit liburuak, eta gainera beharrezkoa izan daitekeela, bestela orduantxe lehertuko ginatke, barruan dugun oro gordeko bagenu, politikoki zuzena den horren ezkutuan, ez genuke inoiz lortuko benetan gizaki bezala garatzea. Halere, noski, ez naiz

ni heriotzaren defendatzaile, baina asko pentsatuarazi dit Rodionen ideia nagusiak, hau da, gizadiaren kopuru txiki batek zilegitasuna izan dezakela legetik at dagoena egiteko, eta aurrean aurki ditzakeen traba oro kentzeko beti ere guztion aurrerakuntzarako beharrezko denean, hau da, azken instantzian “el fin justifica los medios”. Egia da esaldi hau? Ez dakit inoiz gai izango naizezn erantzuteko, izan ere mota gustietako interesak sartzen baitira jokuan bertan, edozerren gainetik arrakasta izan nahi duenari ez zaio axolako burkidea atzean uztea, baina helburu ongizate soziala duen horri, “el medio” ez zaio inoiz inmorala geldituko. Beste behin, inoiz erantzuten jakingo ez dudana esaldi baten aurrean utzi nau, inoiz pentsatuko ez nituzkeen ideia berriei zentzu bat eman eta ulertu nahian.

Nazismoan pentsatzera ere bultzatu nau, arraza supremazian, egia ote da batzuek beste zilegitasun bat ditela gizartean? Honetan, ezetza izango zatekeen nire erantzuna, baina ikara sartzen dit pentsatzeak behin baino gehiagotan pentsarazi didala giza hobekuntzarako denean baimendua egon beharko kukela, ikara eman dit gizatasunaren aukrako krimen handienak egin dituztenen pentsamenduak neuretzak, bestalde denok pentsatu beharkp geukeen zerbait da, horrek ez baitakar berarekin derrigorrean adostasuna.

Bestalde honek guztiak, impunitatearekin pentsatzera narama, jakin, ondo dakigu Rodion hiltzailea izan dela baina bere inguruabar eta sentimenduak ezagutzeak bere barkamenean amestera eraman gaitu, adibide gisa Sofia dugu, zein maitemiduta dagoen beretaz eta dena eman nahi duen berekin egoteko, baina delituak bertan darrai. Zenbaterainoko zilegitasunik dago delitugile baten barkamenerako? Edota atzean uzti zaituen lagun baten barkamenerako? Askok pentsarazten didan gai bat da, badago bigarren aukerarik ematerik? Nork du merezi? Akaso akatsak ez ditugu guztiok egiten? Zer da akats? Zer da barkaezin? Behin eta berriz erantzun ezin ditudan galderen itsaso batean barneratu nau liburu honek.

Gizatasuna ulertzeko ahalmena dugun arma nagusienetako bat da, baina garatu egin behar dugu, landu eta ireki. Saiatu ingurua ulertzen, saiatu berarekin bat egiten eta bertatiik abiatzen, edozein pertsonaren aurrean humil adierazi eta trabarik gabe sakon ulertzen eta ezagutzen saiatzea da egin beharrekoa, Raskolnikov hiltzailea da bai, eta liburua ez bagenu irakurriko “ez-gizaki” gisan izendatuko genuke, zorionez, horren guztiaren inguruabarrak ezagutu ditugu. Eta liburu hau irakurtzeko aukera izan dugunotatik, nork ez du maita Rodia?